

Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

2173

1337/2010 EBAZPENA, martxoaren 18koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen zuzendari gerente lanpostua betetzeko deialdi publikoa egiten duena.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen zuzendari gerente lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa egitea erabaki du zuzendaritza nagusi honek. Hona hemen

OINARRIAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen bitartez, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearen lanpostua betetzeko deialdia egiten da, eta bertara honako hauek aurkez daitezke: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioen erakundeei atxikitako langile finkoak (funtzionarioak, estatutarioak nahiz lan-kontratuko langile finkoak), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko nahiz bere erakunde autonomoetako funtzionarioak eta baldintzak betetzen dituen beste edozein. Hona hemen bete beharreko baldintzak:

- 1.– Unibertitate-titulua eduki beharko dute.
- 2.– Administrazio- eta kudeaketa-lanetan esperientzia izan beharko dute.

Bigarrena.– Interesdunek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Erakunde Zentraleko Giza Baliabideetako Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako eran ere aurkez daitezke eskabideak.

Hirugarrena.– Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek, eskabidearekin batera, honako hauek adierazten dituen curriculum vitae aurkeztu beharko dute:

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

2173

RESOLUCIÓN 1337/2010, de 18 de marzo, del Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión del puesto de trabajo de Director/a Gerente de la Red de Salud Mental de Bizkaia.

Encontrándose vacante el puesto de trabajo de Director/a Gerente de la Red de Salud Mental de Bizkaia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre, esta Dirección General acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes:

BASES

Primera.– El puesto de trabajo Director/a Gerente de la Red de Salud Mental de Bizkaia, que se convoca mediante la presente Resolución, podrá ser solicitado por el personal fijo (funcionario, estatutario o laboral) adscrito a las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, así como por el personal funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, y por aquel otro personal siempre que reúna los siguientes requisitos:

- 1.– Estar en posesión de titulación universitaria.
- 2.– Tener experiencia administrativa y de gestión.

Segunda.– Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Recursos Humanos de la Organización Central de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, dentro del plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de su publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Tercera.– Los aspirantes que deseen tomar parte en la presente convocatoria deberán acompañar a su solicitud un Curriculum Vitae en el que harán constar:

- Ikasketa-tituluak.
- Betetako lanpostuak.
- Lanbidean eta kudeaketa sanitarioan daukaten eskarmentua.

– Ikasketak, ikastaroak, ponentziak, argitalpenak, hizkuntzak eta egoki irizten zaion beste edozein me-rezimendu.

Eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako me-rezimenduen frogagiriak aurkeztu beharko dituzte es-kabidearekin batera. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitzat jotako beste edozein agiri ere aurkez-dezakete.

Laugarrena.– Deialdi hau Osakidetza-Euskal Osa-sun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez ebatziko da. Ebazpena Euskal Herriko Aginta-ritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 18a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

- Títulos académicos.
- Puestos de trabajo desempeñados.
- Experiencia profesional y de gestión sanitaria.

– Estudios, cursos, ponencias, publicaciones, cono-cimientos de idiomas y cuantos otros méritos estimen oportunos manifestar.

A la citada solicitud deberán los aspirantes adjun-tar además la documentación justificativa de los re-quisitos exigidos y de los méritos alegados. Así mis-mo, podrán acompañar cuantas publicaciones, infor-mes o cualesquiera otros documentos estimen opor-tunos.

Cuarta.– La resolución de la presente convocato-ria se llevará a cabo mediante Resolución del Direc-tor General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Quinta.– Contra la presente Resolución podrá in-terponerse recurso de alzada, ante el Consejo de Ad-ministración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguien-te al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de marzo de 2010.

El Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud,
JULIÁN PÉREZ GIL.